

Beteluko Balnearioko Mirakulua

Mikel Antza eta Iñaki Uri

Mirakuluek ez dute Jainkorik

Teatrero gehiengo batekin bat ez etortzeko arriskuarekin baldin bada ere, esan beharra daukat pare bat gauza hemen egiten den antzerkiaz, zeren eta, beste zenbait gauzaren artean, hemengo antzerkiaz pentsatzen duguna izan bait zen «Beteluko Balnearioko Mirakulua» egitera bultzatu gintuena bai Mikel, bai ni eta baitare Zarautzko «Branka» antzerki taldea.

Esan beharra daukat Hego Euskal Herrian behera egiten ikusi dudala euskal antzerkia.

Balantzeak egiteko hain aproposa den urte garai honetan gogora datozkit garai batean gure herriko frontoian ikusitako antzezlan guztiak. Onak eta txarrak. Hobeagoak ala kaxkarragoak. Baina behin eta berriro jendea erakartzen zutenak, bai ikusle gisa, bai antzezle modura eta bai antolatzaile bezala.

Gaur egun, hiru esparruotan atzera egin dela deritzot.

Ez dut uste garai batetan «Intxixu»k edota «Kilikilariak» taldeek lortutakoa berriro lortu denik. Ez dut uste halaber, «Tripontzi jauna», «Nafarroa 1500» edota «Deus ere ez izatetik izatera» obra haietaz buruan daukadana oroitzapen on baten nostalgia bakarrik denik.

Garai hartan, eta ez da hainbeste denbora (hamar urte baino ez Franco hil zenetik), garai hartan, zorionez, behin baino gehiagotan izan genuen aukena kanpoko antzerkia ere ikusteko, hala nola Euskal Herriko talde erdaldunek egindakoa.

Eta distantziak gordeaz, esan behar kanpokoan lotsez ez izateko moduan ginela. Hemen egindako antzerkia edozein tokitan erakus genezakeela probintziano konplejo handiegirik gabe.

Jendeak ilusioz hartzen zuen antzerkigintza bere maila guztietan. Disfrutatzea zegoen antzerkia egiten eta ikusten, eta antzerkiak bete ditzakeen funtzio sozialen antean egokienari erantzuten zitzaion buruhauste teoriko handiegirik egin gabe.

Beste garai batzuk ziren, noski.

Frontoiak, kaleak, plazak eta tabernak izugarritzko garrantzia zuten gizarte bizitzaren antzezleku bezala.

Telebisio, irrati, egunkari etabarren espektakuluan sinesten ez eta bentan sortzen zinen bestelako komunikabideak. Frontoitik, kaletan eta plazatan kokatzen ziren hain zuzen ere asanbladak, manifak, kantaldiak eta gainerako antzerki emanaldiak.

Herriaren komunikabide eta atsedengune izatearen papera betetzen zuena aldatzen joan da ordea, gure gizartearen parte handi bat, eguneroko bizitza den

espektakulu honen ikusle eta ez antzezle edo egile bihurtu denetik.

Jendeak bere sarrera erosten du lau urtetik behin, kristalezko urna batetan sartu, eta antzerki horren ikusle bihurtzen da telebista, irrati eta egunkarien bitartez. Txalo edo ziztu egiteko aukera bestenik ez zaio geratuko.

Gaur egun instituzionalizatu, edota instituzionalizatzeko bideetan dagoen antzerki emanaldi bat ikusterakoan bezalaxe gutxi gora behera.

Politiko «profesionalak», kantari «profesionalak», idazle «profesionalak», kultur-gizon «profesionalak», antzerki talde «profesionalak», aktore «profesionalak»... denak «profesionalak» bihurtu beharreko garaia heldu zen.

Profesionaltasuna kalitatea lortzeko ezinbesteko baldintza delako ustea zabaldu zen gune artean, eta gaur egun, antzerkigintzan bederen, ez profesionaltasunik, ez kalitate maila handirik lortu da.

Kalitate teknikoan irabazi den guzia kalitate humanoan galdu dela usaintzen da. Baina kanpotik jasotzen diren inpresio batzuk baino ez dina hauek, agian, barruan dabilzanentzat, usain baino kirets direnak.

Dena dela, azken urteotako antzerkiaren mugida kanpotik ikusteko aukera baino ez zait suertatu, nahiz eta arras hurbiletik jarraitu.

Eta nabarmendu daitezkeen gauzen artean hiru nabarmenduko nituzke antzerkigileei dagokien heinean: antzerki "txiki"aren hutsegitea, Antzerti erakundea delakoa eta produzio "tzarrak".

Antzerki "txikiak", apalak edo herritarrak, porrot egin duela ematen du (Hego Euskal Herrian, ez Iparraldean). Antzerti eskola bat da beste ezer baino gehiago.

Produzio "tzarrak" berriz beste apostu modu bat dira antzerkitik "bizi" ahal izateko. Hizkuntzarekiko erdarara ere jo beharra, eta dioten bezain independente ez izatera behartuta egotea dakarkielarik sortzen duten diruzuloa estali nahiak, antzerkigintzan sartzen duten esfortzuaren adinako emaitzarik lortzen ez dutelarik gainera.

Bestalde, eta antzerki emanaldien antolakizunari dagokion heinean, erakunde ofizialak, eta ia ia erakunde ofizialak bakarrik pasa dira protagonista izatera, lehen antolatzaile zena, herriko jendea, nekatu, aspertu edota, gaur egun antzerki emanaldi batek sor dezakeen diru zutoa dela eta, ezinezkoa dela ikusirik, erabat jokoaren kanpo gelditu delarik.

Esan beharreko gauzak direla uste dut, nahiz eta balantze luzeago bat eskatu seguruenik.

Uda gau batetako ametsa.

Guztiori hor dagoelarik beste historia bat ere badago, pertsona konkretu eta haragizkoek sortutakoa.

Eskolan, ikasten eta antzerkia egiten; katean, lagun bezala eta herrirako bertako antzerkia egiten ezagututako lagunak, alde batetik; eta literaturgintzaren bide

bihurrietatik SUSAn eta ARGIAN ezagututako beste laguna, bestetik.

Lehendabizikoak antzerkia egiteko gogo eta asmoarekin. Bigarrena Antzerti utzi eta hemengo antzerkiaz erabat arduratua (Ikustea besterik ez dago ARGIAN eta EGUNONen euskal antzerkigintzari, kritiko eta zabaltzaile modura, egin dion jarraipena eta eman dion laguntza).

Uda batez, 1984.ekoan, obra bat prestatzen hasiak ziren «Branka»koak Zarautzen. Irailaren 3an estrenatu beharra zeukaten Zarautzko frontoian.

Gau batez kalean hitzeginda izan genuen horren berri. Goiz batetarako gelditu ginen egiten ari zirena ikusteko.

Abuztu hasiera, eta obra bat izateko gauza asko falta saio hartan ikusitakoari.

Erabakia, Mikelek eta biok oinarri idatzizko bat prestatzea, erabat berria, eta horren gainean lan egitea, taldea eta gure antean obra bukatu bat prestatu arte.

Arazoa, denbora gutxi izatea.

Gaia, haria, pertsonaiak... eseraldi bat idazmakinaren aurrean eta egun gutxi batzutako entsaioak.

Esan beharreko gauzak direla uste dut, obra labur hau bere tokian kokatzeko, eta liburu batetan, antzerki emanaldietatik kanpo, sor ditzakeen galderei erantzuteko.

Saio bat bezala ulertu behar da. Presakako saio bat. Bizi genuen -eta bizi dugun- kultur egoeraren islada bat klabe komikoan. Sinplea, jende gutxirekin eta tresneria gutxirekin egiteko modukoa, "txikia"...

Saio bat buruan geneukana errealitatean frogatzeko: antzerki modu honekin lan egitea posiblea dela. Posible dela medio urri eta ilusio handiz antzerkia eginez bizitzea.

Saio hau jarraipenik gabe gelditu da tamalez. Seguruenik Mikelek eta biok, egunerokoak eraginda, erantzuterik ez geniolako izan apustu horri beste zerbait prestatzeko.

Oraindik ordea ibili beharreko bidea dela iruditzen zait, eta ibiliko dena uste baino lehen.

Ez dakit zenbat emanaldi izan zituen «Beteluko»ak baina Zarautzko estreanoan gertatutakoa «Mirakulua» izan zen benetan: frontoia bete egin zen eta jendeak parre egin zuen. Urteak ziren horrelakorik ikusten ez nuela.

Iñaki Uria

Beteluko balnearioko mirakulua

DRAMATIS PERSONAE

Antzezle bat: Zerbitzaria, Prudentzio, Batista, Abdull.

Antzezle bi: Joxemari Urrezaletti poeta gigoloa.

Fermin Makarregi, kultur ministrari ohia.

Karmentxu Ezpainzabaleta, bere emaztea.

© Mikel Antza, Iñaki Uria



Sarrera gisako lehen ekitaldia

(Administraritza edota instantzi ofizialen bateko bulego bat. Harrera-gelako besaulkitan eserita bi pertsona. Aspertuak. Ezkerretako idazmahaiaren atzean sekretariak makinaz idazten du, etengabe. Bi pertsonetako bat altxa eta sekretariagana doa.

ANTZEEZLE 1.- Atsegin nuke Ministrari jaunak gure informea irakurriko balu, goizeko hamarretan genuen zita, eta laister gaueko hamarrak izango dira. Beraz, asko eskertuko nizuke arduratuko bazina...

(Ezkerreko aldetik, eta antzeztokia diagonalean gurutzatuz Ministrari jauna presaka agertuko da. Bi antzezleak bereganuntz zuzentzen dira premiatsu).

MAKARREGI.- Ez, ez, ez (eskubikaldeetik desagertuko da).

(Bi antzezleak esertzera doazela, desagertu leku beretik berragertuko da Ministraria kafe katilutxotik urrupatuz).

ANTZEEZLE(ak).- Baina Ministrari jauna, kontuan izan gu hona etorri...

MAKARREGI.- Ezetz, ezetz!!!...

(Lehenengoz agertu den lekutik desagertuko da MAKARREGI eta antzezleak hasierako besaulkira itzuliko dira).

MAKARREGI.- (inter-phonotik) Karmentxu' Ez nago inorentzat.

KARMENTXU.- Bai, Ministrari jauna. Txoruaaa!!

(ANTZEEZLE 2 altxako da oraingoan sekretariagana joateko, lore bat eskutan).

ANTZEEZLE 2.- Oi!, zein ederra zaren. Zuk lortuko zenuke zita bat guretzat. Zure edertasunak lortzen ez duena ez dezake eta beste ezerk lor.

KARMENTXU.- Txoruaaa!!

(Beste behin ere agertuko da MINISTRARIA, oraingoan aldegitoko trazekin; ANTZEEZLE(ak) beregana doaz beste behin ere).

MAKARREGI.- Bihar, bihar, zatozte bihar. Bihar emango dizuet eta nahi duzuen guztia.

(ANTZEEZLE(ak), seko gelditu ondoren, erreberentzi bat eginez KARMENTXU agurtu eta maletak hartuz badoaz).

-ILUNA-

Sarrera gisako bigarren ekitaldia

(Argiak pizten direnerako, antzertokiko aurrekaldean bi ANTZEEZLEak maleta banaren gainean eserita dauzkagu. Batak periodikua letzen du. Gainerantzekoa erdilunpean. Irakurleak zerbait interesgarri topatzen du).

ANTZEEZLE 1.- Entzun ezak hau, entzun: «Atzo arte Kultur Ministrari izan zen Makarregi jaunak dimisioa aurkeztu zuen. Erabaki honek ustekabeen hartu ditu komunikabide guztietako politika arduradunak, baina hala ere...».

(Elkarri begira geratzen dira bi ANTZEEZLEak).

ANTZEZLE 1.- Zer egin dezakegu gure Makarregirekin?

ANTZEZLE 2.- Zer beharko genuke?

ANTZEZLE 1.- Toki lasairen bat, urrun dagoen tokiren bat...

ANTZEZLE 2.- Bakartia, jenderik gabea...

(Antzeztoki gradualki argituz joango da. Une honetan, ezkerraldea ikusiko da, Balnearioko sarrerako atea eta harreralekua erakutsiz. Guzti hori errealitateko beste laun batean gertatzen da, hau da, ez antzezleak dauden tokian).

ANTZEZLE 2.- Gauzak sineskaitz, misteriatsu bilaka daitezkeen tokiren bat; giro berezi horretan murgildurik, egiazkoa dena eta asmakizuna nahas daitezen...

ANTZEZLE 1.- Gertaerak jolasean bezala jazoko diren ingurune ez-ziurra, ziurtasun gabea.

(Orain eskubikaldea argituko da ANTZEZLEen atzean).

ANTZEZLE 2.- Gauzak nahasi, mugak hautsi...

ANTZEZLE 1.- Asmakizunak asmatu, aldaketak lortu...

ANTZEZLE 2.- Amodioa eme daitekeen tokiren batetan guztia burutu...

(Erdikaldea argituko da une honetan, antzeztoki guztian argitasun maila gorena lortuz. Ondoren ILUNA nagusituko da, eta ANTZEZLEak egon lekuan bi kandelargi piztuko dira. Horietako bat antzeztokitik desagertuko da. Berriro ere argiak emeki-emeki piztuz joango direnean Beteluko Balnearioko ZUZENDARIA besaulkian lo ikusiko dugu, kandelargi baten argitasun behargabepean).

-ILUNA-

Lehen ekitaldia

Lehen agerraldia

(Beteluko Balnearioko Sarrera Nagusia. Garai batean haunditsua izan eta orainean gainbehera doan zerbaiten giroa atzematen da.

ZUZENDARIA Sarrera Gela Nagusiko Besaulkian etzanik dago Joxeba-Fermin Makarregi eta bere emaztea, maleta, poltsa, teniserako raketa eta salabardoz gainezka -horien artetik kainabera baten punta ere soma daiteke- agertzen direnean Ate Nagusitik barrena. Zarata eginez utziko dituzte tramankuluak. Antzeztokia argiturik)

A1-BATISTA.- Hara! Hemen zaudete, ez esan, ez, badakit, kotxea aberiatu egin zaizue eta oinez etorri behar izan duzue honaino; eskerrak hemengo ikusmira zoragarria dela, paregabea, nahiago baduzue...

MAKARREGI.- Bai, Beteluko zulo honetan baino panorama hobeagoa zegoen Donostiako hondartzetan aurtengo udan... Hotz egiten du hemen, eta bazter guztiak zikin-zikin daude. Kalefazorik ba al duzue behintzat?

KARMENTXU.- Jexux, Fermin! Urduri jarriko duzu gure zuzendari gaxua, ez da ba hain itxusia, gainera, pelukeria esan didate hemengo urak Vichy-koak bezain osasuntsuak direla...

A1-ZUZENDARIA.- Horixe baietz. Gainera hau ez da lehenago zena, gobernutik etorri zaizkigun diru laguntzei esker hobekuntza asko egin dugu instalaziotan...

KARMENTXU.- Horrexek bultzatu gaitu hona etortzera.

A1-BATISTA.-... Ez gara lehen bezain ongi bizi, ez, je, je, lanpara berriak ipini ditugu, piztina urez betetzea lortu dugu... Egia esan, ongi asko badakit jakin zuen garaia askoz ere latzagoa izan zela...

MAKARREGI.- Dudarik gabe.

A1-ZUZENDARIA.- ... dena zegoen eginkizun, telebista, irratia, egunkaria, aldizkariak, batzoki pare bat noiztik behin, probentzi errebeldeak paketzea, teatrua, zinema, mugen arazotxo hura... A! Zenbat arazo, eta zein eskertxarra jaso duzuen.

(Joxemari Urrezaletti gigolo ospetsua sartuko da, poeta eta kirolzale arteko konbinaketaz jazten du, okasio guztitarako prest).

A1-BATISTA.- Baina, baina... Joxemari Urrezaletti poeta pamatua! Nolaz jadanik hemen? Ez al zinen ba etzi etortzekoa?

A2-GIGOLO.- Haizea alde genuen eta espero baino lehenxeago heldu naiz.

A1-ZUZENDARIA.- Eta, zer moduz? Lortu al duzu ekialdeko inspirazio iturrietan murgiltzea?

A2-GIGOLO.- Ongi murgildu ere! Eta hemen naukazue inspirazioz blai.

KARMENTXU.- Oi! Zein interesgarria, eta nondik ibili zara ba?

(Hemendik aurrera elkarrizketa bitan banatuko da. Lehenean ZUZENDARIAK eta MAKARREGIK hitzegingo dute; bigarrean KARMENTXUK eta GIGOLOAK).

A1-ZUZENDARIA.- Atsegin nuke mundu guztiak entzungo balu orain esango dudana, zeren eta zuk, Fermin Makarregi Kultur Ministrari ohi horrek merezi duzun baino ohore eta laudorio gutxiago jaso bait duzu...

A2-GIGOLO.- Txina eta Nepal inguruetaraino iritsi nintzen... Txinan Lin-Ixin Maisu Haundia ezagutu nuen eta berarekin...

A1-BATISTA.- Zu zaitugu Gaintxurizketako zerri depuradoraren projektua aurrera atera zuena, horrekin batera hainbat poeta lokatzetatik atera eta Parnasoko goi mailaraino eramán duzuna...

A2-GIGOLO.- ... eta Nepalen berriz, monje budazaleekin harreman estuetan ibili nintzen... Eta beste hainbat lurraldeetan...

A1-BATISTA.- Eta beste hainbat meritu... Eta zure emazteaz zer esan?

(Hemendik aurrera bat egiten dute bi taldetxoek).

A1-BATISTA.- Hau besterik ez dut kontatuko, zein era miresgarriren bidez ezagutu zenuten elkar. Karmentxu Ezpainzabaleta Euskadiko Miss izendatu zuten urtean han bait zinen zu epai-mahai buru gisa, eta ez zenuen bista txarra izan, ez....

KARMENTXU.- Oi! Eskerrik asko eta aunitz, baina orduan genduenaren laurdena bagenu gaur egun...

A2-GIGOLO.- Hementxe bertan txunditurik galduko nuke konortea. Eder askoa zaude ehuneko hamarra besterik ez duzularik kontserban.

KARMENTXU.- Oiii! Txoruaaa! Ze gazte finaa!

A2-GIGOLO.- Egia da, besterik ez...

KARMENTXU.- Ze izango da egia...

A2-GIGOLO.- Baietz ba...

MAKARREGI.- Aatxis!

KARMENTXU.- Hoztu al zara, Fermin? Zahartuta zaudela eta zaintzea hobe duzu...

(ZUZENDARIA kontserjerira zuzenduko da, eta instant batean Prudentzio kontserjea izango dugu begien bistan).

A1-PRUDENTZIO.- (Joxeba-Fermin MAKARREGI gana zuzenduz) Oker ez banago zu zaitugu Joxemari Urrezaletti poeta pamatua... Eta zuek Fermin Makarregi Kultur Ministrari-ohia eta bere emazte Karmentxu, Ezpainzabaleta ezkongai izenez... (GIGOLOari eta KARMENTXUari).

MAKARREGI.- Ez, ez! Ni, ni naiz Kultur Ministraria!!

KARMENTXU.- Kultur Ministrari-ohia Fermin, ohia...

MAKARREGI.- Eta hau nire emaztea, zatoz hona (KARMENTXU GIGOLOaren besotatik erauziko du beraganatuz).

A1-PRUDENTZIO.- Barkatu, ene bada, a ze traguak pasa behar dituen hemen batek, lanbide zaila da hau benetan, ez digute ezer abisatzen, eta horrela gertatzen dira gertatzen direnak... Behin batean Sofia Loren eta Marilyn Monroe konfunditu nituen, eta beste behin berriz...

A2-GIGOLO.- Pentsatzen dut bidaia luzea izan duzuela Vitoria-Gasteiztik hona eta nekatuta egongo zaretela...

A1-PRUDENTZIO.- Barkatu, barkatu... Ea bada, esaidazue ohe batekoa ala bikoia nahi duzuen eta segituan joan zaitezke zuen geletara deskantsuzera. Makarregi senar-emazteak bikoan ala batekoan?

(Makarregi jaunak begirada sutsuz begiratzen du kontserjea).

A1-PRUDENTZIO.- Noski, noski, bikoan, ezta?

(MAKARREGI k begirada are sutsuagoa).

A1-PRUDENTZIO.- Nola ez ba! Batekoan, ai ama, ai ama... Ba, bi-zero-zazpi da zuen gela; eta zurea, Urrezaletti jauna... bi-zero-bederatzi.

KARMENTXU.- Oi! Zein zirrarragarria, auzokide izango gara. Ba ez litzateke ideia txarra izango promenadatxoren bat egitea balnearioko

pasealeku goxoetan barrena zuk eta biok, Ferminnek lo egin nahi izango du eta...

(Badoaz KARMENTXU eta Joxemari Batistak maletak eta trasteak jasotzen dituelarik).

A1-BATISTA.- Hemendik Makarregi jauna, hemendik...

-ILUNA-

Bigarren agerraldia

(Balnearioko zoko baketsua. Bazter batean horrelakoetan egon ohi den eserlekua. Hurbil dagoen tenis-zelaitik jokaldi baten hasperen, oihu eta esfortzuak aditzen dira. Zerbitzari batek lorategia apaintzen du. Ilunabarra erortzear, kilkerrak hasi dira kantan, erreka garden baten urrotsa, uda balitz ilargi betea han goian; elkarrizketa erraz, misteriatsu eta ia gaiztorako ingrediente guztiak. KARMENTXU eta GIGOLOA sartzen dira eskubikaldetik, jokaldiko izerdia haragian dirdir).

KARMENTXU.- Eta zer iruditzen zaizu nire sudurra?

A2-GIGOLO.- Ikusi ditudan sudurren artetik... nola esan? ederrena!

KARMENTXU.- Benetan lan ederra egin zidan zirujanoak...

A2-GIGOLO.- Ez zeukan ba gai txarra lan ona burutzeko...

KARMENTXU.- Eta ez zidan sudurra bakarrik «ikuitu»...

A2-GIGOLO.- A ez? Zer gehiago ikuitu zizun ba?

KARMENTXU.- Txoruaa! Hori ez da galdetzen, ez al zara zu poeta? Irudika ezazu bada.

(Eserlekuan jartzen dira, hasieran aldendu xamar, gero eta hurbilago, bion arnasak nahasteko moduko distantzian jarri arte; hala ere, hizketarako gai aproposa ezin aurkitu, isilik daude biak. Balneario aldetik bibolin baten melodia).

A2-GIGOLO.- Kotxearekin arazorik izan duzuela esan dit Zuzendariak.

KARMENTXU.- Bai! Senarra baino zaharragoa dut automobila, hortxe utzi dugu bide bazterrean, orain Fermin balnearioan bezala...

A2-GIGOLO.- Eta zer duzue, automobil haundia edo?

KARMENTXU.- Bai zera! Rolsroize koxkor bat besterik ez. Ze ba, mekaniko ere al zara?

A2-GIGOLO.- Zeozer entenditzen dut horretaz ere... Nik eskua sartzen dudan tokian, dena konpontzen da.

KARMENTXU.- Txoruaa!

A2-GIGOLO.- Automobil ederra daukazue beraz...

KARMENTXU.- Akats bakarra dauka...

A2-GIGOLO.- Ze, txoferra?

KARMENTXU.- Zera, matrikula prantzesa duela.

A2-GIGOLO.- Nolaz ba hori?

KARMENTXU.- Ba, Joxeban aita exiliuan zegoela, badakizu iparramerikarrekin ze tratu ziren, haren zerbitzu onak zirela eta opari egin zioten, eta Joxebak ez du aitaren kotxea txatarrerora eraman nahi. Makina bat atsekabe ekartzen digu, ez dugu atarramendurik ateratzen automobil horrekin, erruberak zulatzen dizkiotela, erre nahi digutela, badakizu ze saltsa ibiltzen den bazter horietan... Eta zuk ze automobil klase duzu?

A2-GIGOLO.- Lanroberra!!

KARMENTXU.- Bidaia politak egingo dituzu horrekin, Afrika dela, Asia dela, Erreterian barrena, desertu eta oihanak korrituz; joango nintzateke gustora zurekin... safari batera edo, oasi batera-edo...

A2-GIGOLO.- Gonbidatzen zaitut! Ene hurrengo bidaiari zu izango zaitut kopiloto eta erregin.

KARMENTXU.- Dohakabea ni! Dohakabea!

(Joxemariaren sorbaldan jartzen du negarzetonek itotzen duten bitartean. Une honetan zerbitzari bat agertu da, baina halako eszena hunkigarri baten aurrean, alde batean geratzea erabakitzean du, zuhaitz baten atzean, kuxkux).

A2-GIGOLO.- Zer duzu ba Makarregi anderea?

(Are kontsolagabekiago egiten du negar KARMENTXUK).

KARMENTXU.- Makarregi anderea! Ma-ka-rre-gi anderea, buaa, dei nazazu Karmentxu, mesedez.

A2-GIGOLO.- Ondo da, zer duzu ba Karmentxu, polittorrek?

KARMENTXU.- Ezin izango dudala zurekin joan bidaia liluragarri horretara. Zer egingo dut senarrarekin!!??

A2-GIGOLO.- Lasaitu zaitetz panpoxa neuria, asmatuko dugu zerbait. Bitartean, zuk hala nahi izanez gero, kontatuko dizut nola izango den bidaia hori, askotan idurikatzeak bidaiatzeak bezainbeste balio du eta.

KARMENTXU.- (Ume baten moduan) Bai, bai.

A2-GIGOLO.- Lehenengo egunean lehoi bat agertuko zaigu bide erdian, ba al dakizu zer egingo dudan?

KARMENTXU.- Zeer?

A2-GIGOLO.- Hamabi haundiko eskopeta hartu eta di-da! jo eta akabatu.

KARMENTXU.- O! nire poeta ausarta!

A2-GIGOLO.- Bigarren egunean, sugedorri bat sartuko da zure lozakuan, eta ba al dakizu zer egingo dudan?

KARMENTXU.- Baai!, eskua sartuko duzu nire lozakuan eta sugea hilko.

A2-GIGOLO.- Eez! Nire besoetan hartu eta nire lozakura eramango zaitut.

KARMENTXU.- Aaaa!... Baina... buaaa, eta zer egingo dut nire senarrarekin?

A2-GIGOLO.- Sugedorria dagoeneko lozakuan sartuko dugu!

KARMENTXU.- Txoruaa! Ze gaiztoa zaren! Baina hori ezinezkoa da, nik benetan galdetzen dizut: zer egin dezaket nire senarrarekin?

A2-GIGOLO.- Zer egin dezakezu zure senarrarekin?

(Biei ideia berbera bururatu balitzaie bezala begiratzen dute elkar).

A2-GIGOLO eta KARMENTXU.- Zer egin dezakegu gure senarrarekin?

(Burratu zaienak arazoa konpontzen duenez, eta uneak ere hala eskatzen duenez, musu batean urtzekotan daude KARMENTXU eta GIGOLQA. Zerbitzaria gordelekutik aterako da).

A1-ZERBITZARIA.- Ejem! ejem! Hona natorkizue berri bat ematera, dagoeneko afaria prest daukazuela jangela nagusian, eta zuen geletara igo zaitezketela erropak aldatzearren, hori bada zuen gustoa etor zaitezketen nirekin, hemendik mesedez, hemendik.

(Eszenatokia iluntzen doalarik foko batek KARMENTXUren eskubiko eskua eta GIGOLOAren ezkerrekoa ongi loturik erakuts dezake).

-ILUNA-

Hirugarren agerraldia

(Balnearioko Jangela Nagusia. Eskubitara irrati aparailu zahar bat. Atzean mostradorea, eta bertan BATISTA afarirako prestaketak burutzen. Bi mahai gela guztian. Ministrari-ohia barran apoiatuta)

MAKARREGI.- Mesedez, bete kopa bat... Ez, ez, Oporto.

A1-BATISTA.- Barkatu...

MAKARREGI.- Ze izen duzu?

A1-BATISTA.- Batista.

MAKARREGI.- Batista, nire barneko sekretoak kontatzen ari natzaik... Baina, har ezak, har ezak kopatxo bat, nik gonbidatzen haut. Orain dela hogeitun urte, orduan bai nuela indarra eta kemena, orduan egiten genituenak... lorik ere ez genuen ia egiten: projektuak, azterketak, ikerketak... (geldiunean) Baina garai haiek joan ziren eta orain «Ministrari-ohia», «Fermin-ohia»... eta horrela da. Horrek ez dauka bueltarik. Gauza bat besterik ez dut eskatzen, gelditzen zaizkidan une guztiak lasai eta pozik bizitzea. (geldiunea) Bera hantxe ibiliko da tenisean jokatzen poeta «famatu» horrekin, ekialdetik poemak dakartzan poeta horrekin. Eta ni?, ni izan bait naiz ekialdeko poema gehienak itzuli dituen. (geldiunea) «Pelukerian esan didate», «Club-ean entzun dut»... Eta hemen gaude berriketan. Kostaldean bai, arrantza piska bat, pasealdi laburrak, panorama ederrak... Nigatik izan balitz...

Baina oraindik jendez inguraturik ibiltzea da berari gehien gustatzen zaiona. Hala ere, bazter guztietan gertatzen dira gertatu behar direnak. Zenbat eta zenbat gauza ikusiko zenuen zulo honetan. (Geldiunea) Egia esan, niri urak ez dit gauza haundirik esaten, betidanik nahiago izan ditut bizigarri piska bat ematen didaten gauzak. Ezin dezakegu jakin leku bat ezagutu aurretik zeintzuk izango diren bertan aurkituko ditugunak. Baliteke nire bizitzako esperientziarik freskoena aurkitzea, bai, hemen, zulo heze honetan. (geldiunea) Han ibiliko da, «indarregi bota didazu», «ez dut pilota ikusten»... Ez da nekatzen. Nekea, nekea... Lekeition bai egun ederrak pasa ditudala, han ibili genuen martxak horrelako aste lasai batzu eskatzen zituen, txibiak harrapa, antzarrak ikus... Zuk bai ikusiko zenituela hemen gauza xelebreak, zenbat eta zenbat abentura, misterio... agian, hilketak ere gertatuko ziren lau horma zikin hauen artean.

(MAKARREGI badoa; eta aldegin bezain pronto KARMENTXU agertuko da han buruz galdezka mostradore atzean dagoen BATISTARI. KARMENTXU joan eta GIGOLOa agertuko da. Azkenik BATISTA bakarrik dago, eta mahaiak prestatzeari ekiten dio).

A1-BATISTA.- Kopa guztiak garbitu. Afarirako mahaiak prestatu, eta gainera, hona etortzen diren guztien frustrazio, pena eta komeriak entzun behar: «Ustel dagoena, nonbait bota behar». (geldiunea) Hor ibiliko da gure poeta ausarta, hamabi haundiko eskopeta gora-behera, di-dau, hartu-utzi, pilotak, tenisa: beti Tarzan, Romeo, Rodolfo Valentino... Beste batzu berriz, beti Txita, bufoi, zerbitzari...

-ILUNA-

Laugarren agerraldia

(Lehenagoko jangela bera. Afaria bukatzear. Eskubiko mahaian Joxemari Urrezaletti koadernoan zirriborratzen eta zigarrilo bati hodeiak lapurtzen. Erdikoan MAKARREGI eta KARMENTXU. KARMENTXU Joxemari bistaz galtzeko, eta MAKARREGI zoparekin borrokan. Zerbitzaria hurbil, edozein eskabideri erantzuteko gertu)

KARMENTXU.- Uff! Nekatuta nago...

MAKARREGI.- Nekatuta, nekatuta... Bueltaska bat besterik ez duzu eman eta dagoeneko nekatuta zaude. Alferrikakoa izango da zein exerzizio gutxi egiten duzun esatea, eta komeniko litzaizukeela egunero

zerbait ibiltzea. Behin ere ez duzu nahi izan nire eguneroko pasealditara etorri.

KARMENTXU.- Ze kasualidadea izan zen zure pasealdi guztiak hauteskunde kanpainarekin batera gertatzea. Garai hartan atera zenuten hain famatua egin zen eslogana: «Oinak pausoz-pauso, bihotzean poz-poz eta urnak bete gure botoz»... Ez zait ahaztuko.

(MAKARREGIk zerbitzariari dei egiten dio, eta honek zopa gehiago nahi duelakoan zerbitzatzeko imintzioak egitean MAKARREGIk bortizki errefusatzen du).

KARMENTXU.- Ez al zenuen orduantxe ere korrikalari omen zen Abdull afganiarra ezagutu? Oker ez banago bera izan zen garai hartako zure kemena eta osasunaren zaintzailea. Orduan bai saiatzen zinela zure irudia zaintzen.

MAKARREGI.- Mirakulua dirudi horrelako pasealdi laburrak eman dizun argitasuna.

KARMENTXU.- Pasealdi guztiak gaurkoa bezain atsegin eta interesgarri balira...

MAKARREGI.- Dirudienez ingurua gogoko duzu...

(Inongo disimulorik gabe KARMENTXU Joxemariri zuzenduko zajo ondorengo hizkeialdian).

KARMENTXU.- Ze goxuak zeuden saltxitxa horiek pure txuri-txuri horrekin.

MAKARREGI.- Niri berriz fideo-zopa iruditu zait lurrak garbitu ondorengo urarekin egina zegoela.

KARMENTXU.- Eta oilasko ixter errea! Sekulakoa.

MAKARREGI.- Fideo-zopak berriz, ez sustantzi eta ez ezer. Ezer ere ez zuen. Mila zopa gozatutako kainada-hezurra lapikoan sartu eta atera besterik ez dutela egin ematen zuen.

KARMENTXU.- Nire flana bai zegoela biguina natarekin nahastuta... Eta zuk, zer moduz afaldu duzu Urrezaletti jauna?

A2-GIGOLO.- Primeran, zuen konpainia atseginean...

KARMENTXU.- Gure?

MAKARREGI.- Konpaini batzu ezinbestekoak izaten dira...

KARMENTXU.- Ezinbestekoa... heriotza ere ezinbestekoa izan ohi da...

(Bezeroek zer moduz afaldu duten interesatzeko sartzen da ZUZENDARIA).

A1-BATISTA.- Zer moduz afaldu duzue?

KARMENTXU.- Ederki.

MAKARREGI.- Gaizki! (Korroskoa botatzen du).

KARMENTXU.- Jesus, Maria eta Joseba, Fermin, har ezazu ur piska bat on egingo dizu eta...

A1-BATISTA.- Bai, noski, eta hemengo urak gozatu ondorenean sentituko duzue zuen gorputza gaztetzen, zuen umorea alaitzen, bizitzaren oldarra zuen baitan nagusitzen, berriro ere. Beteluko Balnearioko uretan bainatu diren pertsonai, errege eta printzesak dira horren lekuko: Alpontso treze, Ronald Reagan, Felipe Gontzalez bere gobernuaren hamahirugarren krisia konpontzeko asmoz etorri zenean, horiek guztiak, eta orain zuek, Fermin eta Karmentxu Makarregi...

(MAKARREGI jauna lo gelditu denez, ZUZENDARIA diskretoki baztertzen da. GIGOLOak irratia ikusten du eta martxan jartzeko asmoz altxatzen da).

A1-BATISTA.- Ez, ez, mesedez, ez dago hori ikuitzerik. Asko sentitzen dut baina badago balneario honetan zerbitzuari bakarrik erabiltzea dagokion hainbat gauza.

A2-GIGOLO.- Ez da ezer, ez da ezer! Barkatu nire ausardia! Tresna elektriko hauek betidanik iruditu zaizkit misteriotso xamarrak... Guk poetak ez daukagu gauza hauekin praktika gehiegirik, badakizu.

A1-BATISTA.- Misteriotso diozu? Ai nik kontatuko banu! Balneario hau isilpean eta giltzapean gorderiko sekretuz josia dago. Ai nik kontatuko banizu...

KARMENTXU.- Oi, zein interesgarria!... Esan, esan, bai... asko gustatzen zaizkit gisa horretako istorioak... konta iezaguzu zure sekretoren bat! Guk ez diogu inori kontatuko! Zin dagizut!

A2-GIGOLO.- Noski, noski, ez dugu ezer kontatuko.

A1-BATISTA.- Ez dakit ba, ez nuke esan behar.

A2-GIGOLO.- Pentsa ezazu, interesgarri balitz, edozein aldizkarik argitara lezake, nik ditudan influentziekin ez litzateke zaila izango... «Misteriotik at», «Interesgarria», «Muga ezezagunak», «Fikzioak»...

A1-BATISTA.- A, bai? Konta, konta...

KARMENTXU.- Nik Bilbotik Iruñeara eta Donostiatik Gasteiza.

kontatuko nuke, Club-etan, Gizarte Bilkuretan...

A1-BATISTA.- Zuk uste duzu? Eta ni ere azalduko al nintzateke? Konta, konta...

A2-GIGOLO eta KARMENTXU.- Ez, zuk konta!

A1-BATISTA.- Noski, noski...

(Lehen Joxemari eserita zegoen mahaietan eseriko dira hirurak: GIGOLOa ezkerretara, KARMENTXU esku bitara, eta BATISTA erdian. Beste mahaietan MAKARREGI lo dago antza denez).

A1-BATISTA.- Duela hogeitamar urte hemengo zuzendaria ez zen gaur egungo bera. Luis Ferdinand zuen izena, frantsesa beraz...

KARMENTXU.- Frantsesa?

A1-BATISTA.- Frantsesa, bai. Garai batean, hona etorri aurretik, Louis Ferdinand «Coco» Zale aktorea ezagunarekin ezkondua egon zen. «Coco»k Frantzian zehar, Europan zehar, gehiago esango nuke, munduan zehar mugitzen zuen bere «gorputza», barkatu, bere pertsona, arrakasta ikaragarri, han eta hemen. Bihotzeko aldizkari guztietan agertzen zen, argazkiak, zinema... Beno, harira! Bitartean, Louis Ferdinand Parisen, lanean, paperez inguraturik, hamaika negozio eta espekulaziotan murgilduta, bainan... «Coco»rik gabe... Amorraturik. Hori ez zuen aguantatzen. Gainera, agertzen bazen ere, pare bat egunetarako besterik ez zen, eta modistekin frogak egin, festaren bat ez dakit zein Konteren etxean...

KARMENTXU.- Hori bai dela suerte oneko emakumea. Bidaiak, koktelak...

A2-GIGOLO.- Ez ezazula uste. Neketsua da bizimodu hori. Nik nahiago dut lasai bidaiatzea.

KARMENTXU.- Bakarrik, Joxemari?

A2-GIGOLO.- Bakarrik, edota bestela...

A1-BATISTA.- Jarraituko dut ala... bestela banoa nire eginkizunetara.

A2-GIGOLO.- Oi!, ez, ez! Mesedez. Barkatu. Jarrai ezazu!

KARMENTXU.- Bai, bai, jarraitu, oraintxe hasi gara eta istorioa bizitzen...

A1-BATISTA.- Erabaki gogor bat hartu zuen Louis Ferdinandek. «Gogorra bai, baina hartu beharrekoa!» zioen berekiko. Eta «Coco» berriro Parisera itzuli zenean, hil egin zuen. Hori ez da behinere ziurtatu... Poliziaren ikerketek ez zuten ezer argitu. Louis Ferdinandek ba zuen koartadarik. Bere izeba baten etxean igaro zuen gau osoa. Ja! Forenseak ere ez zuen gauza haundirik argitu... Modu bereziren batetan itota... arrastorik ez bait zegoen gorpuan... pozoin ezezagun batez... Louis Ferdinandia erabat ezberdina iruditu zitzaion bizitza, goizean, erdirekia zegoen leihotik haize freskoa sartu eta esnatu zenean. Eguzkia indartsuago, zerua argiago... kotxeak, hiriko zaratak, musika liluragarria... Baina ez zen beti horrela izan. Gau batez, gela guztian entzun zen barrealgarak esnatu zuen...

KARMENTXU.- Barreak? Ze beldurra Joxemari!

A1-BATISTA.- Gau bat, hurrengoa, eta hurrengoan ere. Ferdinandek ez zuen jaten, ez lorik egiten, darkarka, beldurra gorputzean sartuta...

KARMENTXU.- Oi! Oi!

A1-BATISTA.- Handik alde egin behar zuela eta, Europa guztian zehar ibili ondoren, hona etorri zen. Etxea gustatu zitzaion. Ingurua lasaitzat jo zuen. Terreno zabalak ere erosi zituen; eta hementxe finkatu zuen bere bizilekua, «Coco»ren mamua ahanzteko asmoz, baina!...

KARMENTXU.- Baina... Zer?

A1-BATISTA.- Baina ez zen dena erraza izan... Balnearioa moldatu zuen hurbil zegoen erreka batetik ura ekarriz, eta urte batzuk pakean igarotzea lortu zuen. Egun batean...

A2-GIGOLO eta KARMENTXU.- Egun batean...?

A1-BATISTA.- Arratsaldeak azkenengo minutuekin zer egin ez dakien une horietan gertatu zen...

A2-GIGOLO eta KARMENTXU.- Zer gertatu zen?

A1-BATISTA.- Gertatu behar zena.

KARMENTXU.- Zer?

A1-BATISTA.- «Coco»ren mamua agertu zitzaion!

(Une honetan KARMENTXU ondoezak jota geratuko da, eta Urrezalettik kasu egiten dion bitartean BATISTAK kontakizunarekin jarraituko du).

A1-BATISTA.- Louis Ferdinard zuri-zuri agertu zen gosaltzera hurrengo goizean... ez zuen hitzik ere esan.

A2-GIGOLO.- Karmentxu! Ura mesedez, ura, azkar! Lasaitu zaitez, Karmentxu. Edan ezazu.

(Karmentxuk edaten duen bitartean BATISTAK eta Urrezalettik begirada esankorra gurutzatuko dute).

KARMENTXU.- Hobeto nago. Milesker.

A2-GIGOLO.- Haize piska bat hartzera aterako gara lorategira?

KARMENTXU.- Ez, nahiago dut hemen gelditu.

(BATISTAK irratia piztu eta musika aditzen da).

KARMENTXU.- Eskerrik asko. Ze musika atsegina! Ze ederki! Dantzatzeak on egingo dil, baina...

(Lokuluska gozoan dagoen MAKARREGI begiratzen du).

A2-GIGOLO.- Eta nirekin dantzatuko al zenuke, Karmentxu... Makarregi anderea?

KARMENTXU.- Zoro zoro Joxemari, barkatu, Urrezaletti jauna.

(Dantzan hasten dira).

A2-GIGOLO.- Karmentxu, oso ongi egiten duzu dantza.

KARMENTXU.- Txoruaaaa! Milesker...

A2-GIGOLO.- Zuk bezain ongi dantza egiten duen emakume gutxi ezagutu dut.

KARMENTXU.- Club-ean dantza ikastaro bereziak egin ni-

tuen... eta dagoeneko badakizu zein ikasle ona naizen. Bat batean sartzen zait erakusten didatena.

A2-GIGOLO.- Ohartu naiz, Karmentxu, oso arma zarela gehien bat.

KARMENTXU.- Beti esan ohi dut gorputza era egokian mantentzeko kirola, dantza eta, batez ere, maitasuna... direla gauzarik garrantzitsuenak.

A2-GIGOLO.- Maitasuna, poetek bakarrik ulertzen dute maitasuna. Batzutan arazo asko sorrarazten du maitasunak... A!, eta zuk pentsatu al duzu nola konpondu zure arazoa?

KARMENTXU.- Pentsatu bai, baina adorea falta zait...

A2-GIGOLO.- Adorea emateko gaude gu, poetok.

KARMENTXU.- Begira ba ze aurkitu dudan gure gelako izkina batean.

A2-GIGOLO.- Ea ba, «arratoi eta saguak hiltzeko pozoina». Eta noiz izango da?

KARMENTXU.- BIHAR!

-ILUNA-

Bostgarren agerraldia

(Balnearioko pizina. Goizeko hamaikak eta hogeitabi. Joseba eta Karmentxu, lehena arrantzan, bigarrena adiskideentzako postalak prestatzen. Haserre, bart gauekoagatik...)

KARMENTXU.- Oporretan eskutitzak eta postalak idaztea da gehien gustatzen zaidana. Gogoratzen Bilboko kafetegi eder hartatik Mirentxuri bidali geniona? Hura izan zen bidaiaren ederra! Beti egon ohi zen jairen bat antolatzeko aitzakia. (geldiunea) Hau Jose Antonio eta Karmelerentzat, gure ohizko postala jasoko ez balute sentituko lukete eta. (geldiunea)

Ze, Fermin? Zerbait harrapatu al duzu? (geldiunea) Ez? Entrenamendu falta.

MAKARREGI.- Ixo! Arrainek alde egiten badute zure erruz izango da. Lagun artean diogun bezala: «bai ehizean, bai arrantzan, emakumeak hobe pasian».

KARMENTXU.- Eta Aralarreko ermitan izan ginenean... gogoratzen al dituzu kate haundi horiek? Ze inpresioa! (geldiunea) Komunikabide hau izugarria da; batzutan, honelako paper bat hartu eta nobela .bat irakurtzen ari zarela senti dezakezu.

MAKARREGI.- Zaude isilik! Balnearioko zulo galduenean ere lasai egoterik ez!

KARMENTXU.- Entzun Fermin, honelako zerbait da Lionari idatzi diodana:

«Betelu (obra ematen den eguna)

Kaixo, bihotzeko lagun maitea!

Hementxe gaude, mendi artean. Lekuak zerikusi gutxi dauka zuk kontatu zenidanarekin. Funtsezko aldaketak direla medio, hoteltxo zikin bat izatetik balneario galanta izatera iritsi da. Suizakoen parekoa.

Orain ibai ondoan gaude, Fermin arrantzan ari da... badakizu... Bestalde, zerbitzua apain eta garbia da, ez dugu kexatzeko ziorik, hasiera-hasieratik hemengo zerbitzariak tratatu atsegina eskeini digute.

Poeta famatu bat dugu auzokidetzat... Badut itzuleran nahiko gauza kontatzeko...

Besterik gabe agurtzen zaitugu.

Bi muxu, Fermin eta Karmentxu.

MAKARREGI.- Aatxiss!!

KARMENTXU.- Hoztu egingo zarela Fermin! Begira, pasmo-belarrak jasoko ditut eta gero inpusio bat preparatuko dizut.

MAKARREGI.- Ez!

KARMENTXU.- Zergatik ez, Fermin?

MAKARREGI.- Ez dudalako nahi, nahiago nuke nik beste belarren bat!

(Eskubiko aldetik Abdull sartuko da bere salgaiak promozionatuz).

A1-ABDULL.- Tabakoa, whiskya, opioa, piko-koxkorak, harritxoak, anfetak, eLe-eSe-De, heroina!!! Tabakoa, whiskya, opioa...

MAKARREGI.- Hona! Zatoz!

A1-ABDULL.- Aspaldiko Makarregi! Ze zabilta? Betikoa nahi duzu, ezta?

MAKARREGI.- Ejem, bueno, nik, ba, ez, ez...

A1-ABDULL.- Nola, ja ez duzula esnifutzen? Presidenteak eta horiek baino doblea sartzen zenuen zuk eta?

MAKARREGI.- Bai, eta uste nuen nire muturgogorak aguantatuko zuela, baina tren horretan ibiliz gero badakizu, segituan biguintzen dira denak eta nire sudurra platinozko errefuertzo baten beharrean ikusi nuenean... uztea erabaki nuen.

KARMENTXU.- Eta ongi egin zenuen! Zoaz, zoaz eskolatik ateratzen diren haurrak engainatzera, ale, ale! Eta gu, hementxe, lasai lasai egongo gara, e?

(Abdull-ek alde egin eta Zerbitzaria sartuko da bandeja batetan bi basokada ur dakartzalarik).

A1-BATISTA.- Egun on jaun-andreak, hemen dakarkizuet hamaika t'erdietako ur razioa.

KARMENTXU.- Oi! Ze ederki, utzi, utzi hortxe eta konponduko gara gu.

(Lehen Joxemariri erakutsitako poltsatxoa atera eta basoetako batetara botako du, kontu haundiz).

KARMENTXU.- Hartu, Fermin, hemen duzu zure ura...

MAKARREGI.- Ez!

KARMENTXU.- Zergatik ez ba, Fermin?

(Une honetan arraia batek Ferminen kainaberaren amua hozkatu duela dirudi, Karmentxu laguntzera hurbiltzen delarik salabardoa eskutan hartuta).

MAKARREGI.- Ez dudalako nahi, ura gorrotatzen dut, ezin dut ikusi ere egin; gainera, oraintxe hartu dugu hamaiketakoa, eta dijestioa bukatu gabe daukat, ura edanez ziur hilko nintzatekeela, ez zait gustatzen, ez dut nahi, ez eta ez, ez!

(Laguntza lanetan dabilen KARMENTXU MAKARREGIren atzean suertatu da, eta hau aulkitik altxa delarik oreka zailean egonik, salabardoaz bultzadatxoa ematea besterik ez dauka piszinara eror dadin).

MAKARREGI.- Karmentxu! Karmentxu! Dijestioa! Ai ama, hilko naizela, itoko naizela, hilk... glu, glu, glu...

(KARMENTXUren aurpegian aingerutxoen irribarrea nabarmenduko da eta erditrantzean ondorengo testua esango du):

KARMENTXU.- Maitasuna zirujano bat da

Maitasunak zure gorputzean ebaki dezake

bisturi batek bezala.

Bihotzetik gertu eragiten du

eta larrugorritan utz zaitzake...

Ez didazu sinisten, ezta?

Badakit.

Zure azala, ibiltzeko era, dena alda dezake.

Amodioarentzat ez dago pozimarik

zirujanoaren bisturia izan ezik.

-ILUNA-

Bigarren ekitaldia

Lehen agerraldia

(Balnearioko bi-zero-zazpi gela. Erdian ohe zabala. Bertan bi mendixka. Intziriak, hitz maitagarriak argia egiten doan heinean. Bukatu da siestagaraia)

KARMENTXU.- Azkenik, zu eta biok bakarrik!

A2-GIGOLO.- Bai, Karmentxu...

KARMENTXU.- Ez zara ehiztari txarra...

A2-GIGOLO.- Zure «bultzadei» esker...

KARMENTXU.- Oi! Joxemari, ez iezadazu horrelakorik gogorarazi, zatoz hona, nire besoetara berriz...

A2-GIGOLO.- Non ote dago?

KARMENTXU.- Zer galdu zaizu, maitea...

A2-GIGOLO.- Non sartu ote da?

KARMENTXU.- Ze galdu zaizu?

A2-GIGOLO.- Aitortuko dizut... birjinitatea... lehen aldia izan da...

KARMENTXU.- Benetan! Ez naiz konturatu ere egin ba, denbora guztian erakutsi didazun kemena, indarra, abilitadea, trebetasuna, safari batean piztiz inguraturik nengoela iruditzen zitzaidan... Ai! Joxemari, nire bizitzako unerik ederrena izan da!

A2-GIGOLO.- Ba, oraindik hasi besterik ez gara egin eta.

KARMENTXU.- Txoruaaa!

(Kanpokaldean zaratots izugarria aditzen da).

KARMENTXU.- Zer izan da hori?

A2-GIGOLO.- Zer?

KARMENTXU.- Zarata hori.

A2-GIGOLO.- Ohe hauek ez daudela horrelako enbatetara ohiturik...

KARMENTXU.- Ez, ez, hor kanpoan izan da.

A2-GIGOLO.- Ez kasorik egin, zatoz hona.

(Lehenagokoa baino zaratots haundiagoa).

KARMENTXU.- Bai. bai, hor kanpoan da. Zoaz Joxemari, zoaz ikustera...

A2-GIGOLO.- Tira ba, zu pozik uztearren joango naiz...

(Joxemarik aldegitan KARMENTXU tokadorera zuzentzen da, ohealdiaren ondoren joan zaion makillaia konpontzera, alai).

KARMENTXU.- Oi, Karmentxu, pelukerian jakingo balute! Ze esperientzia. Baina zuk ez zenidan sinesten, ez zenuen uste lortuko nuenik, eta gainera harrikada bakarraz bi txori, hobe, zaharra gaztearen truk. Gaurtik aurrera aldatu da nire bizimodua, safariak, inpresio fuerteak... Zer? Zer diozu? Nire bihotzak ez lukeela jasan ahal izango inpresio txikiena ere? Ez al nago ba hemen, zure aurrean, oraintxe bertan bizitutako gertaera sineskaitz hori kontatzen...? Haragi gaztearen dardarrak nirea gaztetu dit.

(Ahots bat entzuten da kanpokoaldetik "je!" esanez).

KARMENTXU.- Ze Joxemari? Zer zen zaratots hori?

(Berriro ere je! "berdina adiizen da).

KARMENTXU.- Joxemari?

(Atetik itzal bat sartzen da, urrats zailak eginez, uretan blai, ur-landareak zintzilik daramatzala, Fermin Makarregi "defuntua" dugu. Karmentxuri begira geratzen zaio. Karmentxuk bista altxa eta ispiluan isladaturik bere senarra "zenaren" irudia ikusten du).

KARMENTXU.- Ai ama! Mirakulua! Begoñako Ama otoitz egiozu Jaungoikoari pekatari honetaz erruki dadin! Mirakulu gaiztoa! Gloptx!

MAKARREGI.- Je!

(Emaztea hilik dagoela konprobatu ondoren, atealdera zuzentzen da).

MAKARREGI.- Joxema! Joxema! Hator hona! Hau egina zeok eta!

A2-GIGOLO.- Ze, astindu al dizkik hegoak?

MAKARREGI.- Bai, azkeneko aldiz, zorionez. Bai eta orain, azkenik, zu eta biok bakarrik!

(Elkarri musu luze bat eman ondoren ohean murgiltzen dira besarkada estuan. Ohe azpitik zerbitzaria atera eta Karmentxuren gorpua besotan hartuz gelatik aterako du).

-ILUNA nagusitzen den bitartean-

Bigarren agerraldia

(Beteluko Balnearioko bi-zero-zazpi gela. Orduerdi beranduago. Eszenatoki erdian eta ohe aurrean aulki bat. Aulkian lotuta Fermin MAKARREGI kamiseta eta kaltzontziloa besterik ez daramatzala soinean. Plazerezko irrifar konfundigaitza ahoan, estutzen duten sokek sortua ezbairik gabe. Alboan Joxemari, betaurreko beltz, kate eta kaltzontzilo beltz motx batekin. Zigorra eskuan)

MAKARREGI.- Gehiago, gehiago eta fuerteago, Joxema!

A2-GIGOLO.- Nik ez diat minik egin nahi.

MAKARREGI.- Jotzen ez banauk egiten didak mm.

A2-GIGOLO.- Ederki, hik nahi izan duk, hartzak! (Zigorraz jotzen du).

MAKARREGI.- Aaaaa!... Joxemaaa...

A2-GIGOLO.- Zer?

MAKARREGI.- Fabore bat egingo al didak?

A2-GIGOLO.- Nahi duana Maka.

MAKARREGI.- Irakurriko al didak poema bat?

A2-GIGOLO.- Norena?

MAKARREGI.- Hirea, noski, horiek dizkiat maitekoen.

A2-GIGOLO.- Zein poema baina?

MAKARREGI.- «Laku urdina» izenburutzat daramana.

A2-GIGOLO.- Ez al da onegia izango zuretzat?

MAKARREGI.- Ez, ez, nire bizitzan entzun dudan poemarik txarrena da...

A2-GIGOLO.- Tira ba, ea non dagoen...

(Maletinan bilatzen du puska batean).

MAKARREGI.- Azkar, azkar, ezin dut gehiago!

A2-GIGOLO.- Hor doakik?

Laku urdinaren kolorea daukate

ene maitearen begiek.

Urdinak, zerua bezala,

Urdinak gure maitasuna bezala.

Ez berdeak zuhaitzen ostoa bezala.

Ez gorriak salmoneteen azala bezala.

Urdinak, Donostiako autobusak bezala (antzezten den herri....)

urdinak, Hertzainen udako kamisak bezala,

urdinak, bostehuneko bileteak bezala,

urdinak, (leku bakoitzeko zerbait urdina aipatu)

urdinak, urdinak...

MAKARREGI.- Ze txarra, aaa, zein ederki, ze txarra, txarra.

MAKARREGI eta A2-GIGOLO.- Urdin, urdin

mutxurdin

egidazu faborez min!

Urdin, urdin

mutxurdin

egidazu faborez min!

(Une honetan atea zabaldu eta BATISTA sartuko da gelan).

A1-BATISTA.- Nahikoa diagu, ez?

A2-GIGOLO.- Ze ostia, hik tardatu duk beharrezkoa baino gehiago, dagoeneko ez nekian zer egin!

A1-BATISTA.- Ez zekiat ba hiri ere ez zaiken gustatu azkenerako...

A2-GIGOLO.- Egon hadi isilik, babo zerria!

A1-BATISTA.- Egiak beti min, «Urdin, urdin/mutxurdin/egidazu faborez min». Entzuteko modukoa huen.

MAKARREGI.- Joxema, zer duk hau?! Bota ezak zerbitzari lerdo hori, ez dut nahi inork gisa honetara ikus nazan. Bota ezak!

A2-GIGOLO.- Egon hadi isilik, honekin ari nauk ni orain.

MAKARREGI.- Baina Joxema, gure amodio ezkutuaren izenean, aska nazak edo egintzak zerbait.

A1-BATISTA.- Mingaina moztuko diagu ez bahaiz isilik egoten, txintxo-txintxo! Ez al gaituk ezagutzen?

MAKARREGI.- Ez, ez, A! Zuek, bai, noski... je, je, ederki sartu didazue ziria! Ez al zineten zuek pailazoak? Oker al nago?

A2-GIGOLO.- Bai, oker zaude, oraindik ez dizugu ziria inondik sartu, baina itxoin piska bat.

A1-BATISTA.- Bai, nahiko pailazokeria egin genian hire despatxuko atean bost urtez. Egunero joan eta etorri, esku hutsik.

A2-GIGOLO.- «Minsitrari jauna batzartuta dago».

A1-BATISTA.- «Ministrari jaunak ezin zaitzakete hartu».

A2-GIGOLO.- «Ministrari jauna ez dago, bidaia garrantzitsu bat zuen gaur».

A1-BATISTA.- «Zatozte aste bete barru».

A2-GIGOLO.- Hire sekretaria guztiak ezagutu genizkian.

A1-BATISTA.- Eta ez hituan gutxi izan. Bitartean gure antzerki taldea miseria gorrian, haurrentzako antzerki lan kaskar bat montatzeko ere ez zitzaigun dirua iristen. Zer esanik ez gure urdailak baretzeko.

A2-GIGOLO.- Behin bakarrik ikusi genuen elkar. Bost urteren buruan despatxutik korrika eta presaka atera hintzeneko batean.

A1-BATISTA.- Egun hartan zin egin higun hurrengo egunean zinatuko huela gure talderako subentzioa.

A2-GIGOLO.- Egun hartan ere aurkeztu huen dimisioa.

MAKARREGI.- Ez zen nire erruz izan! Nik ez nekien, nik ez nuen hainbeste diru denontzako, kontutan hartu nazio bat eraikitzean prioridade batzuk badaudela eta norberak ezin duela jokatu bere gustoen arabera, gizartearen beharrak ongi neurtu eta zehaztu behar dira, batzumentzat gaitza ekarriko badute ere, guztiontzat dakarte ona epe luzera begira. Hori ezin ahantz daiteke, gainera, kultura ez da ente abstraktu bat, kultura herritarrek herriarentzat egiten duten zerbait da, espresio askatasunaren azken espresioa. Baina espresio honi ere ez da ekonomiá eta politikaren baldintzetatik at geratzen...

(Tarte honetan Zerbitzariak zapi bat hartu eta ahoa tapatuko diote MAKARREGIri).

A1-BATISTA.- Honen modukoa izan huen hik guri eskeinitako espresio askatasuna. Guk, hala ere, painelu bat bestenik ez diagu jarri. Arnasa bar dezakek. Guri hori ere ukatu zeniguten. Hire dimisioak gertaera latzak erakarri zituen gure antzerki taldearen baitara. Pako eta Juan zuizidatu egin hituen. Maria Bilboko «kabaret» batean ari da lanean. Pedromari Konpainia Nazionalean figurazioa egiten dabil ordudanik. Soinu eta argien teknikoak telebistako mantenimendu sailean sartu zen. Gu biok bakarrik geratu ginen, antzerkia zainetan, antzerkia ezin utzi, gure bizitza errepresentazio huts izatera kondenaturik, ezin bait genuen nahi genuena lortu, taula gainean lan egin.

A2-GIGOLO.- Mendekua eskatzen zian horrek, ongi uler dezakean moduan. Eta gaurkoarekin bukatzen dugu gure antzerki langintza, hau da sekula eszenaratuko dugun azken obra, azken obraren azken emanaldia.

A1-BATISTA.- Baina obraren amaiera iristear dagoelarik, ez nuke une hau ondorengo esan gabe iragaiten utzi nahi: gogorarazi nahi nizkiake hire esaldi ponpoxo batzuk, hik hioen gaztetxo ginela eta urteek

erakutsiko zigutela diruaren itzalera hurbiltzen, ezinbestekoa zela, bizitzak markatutako legea zela...

A2-GIGOLO.- Hik hioen helburutan denok ados geundela, euskal sendia zela salbatu beharrekoa, euskararen supazter txokoan, arazoa helburu horiek lortzeko bidetan zegoela, hor ez ginela ados, baina bide horiek gobernuaren esku zeudela, eta gobernu gabe ez zegoela nora joan.

A1-BATISTA.- Bai, eta gu hemen etorri gaituk, ez hiri kontuak eskatzera, baizik eta hire diruak lapurtzera.

A2-GIGOLO.- Nahikoa hitzegin dugu, barkatu aspertu bazaitugu Ministrari jauna, hau besterik ez genizun esan nahi, eskerrik asko zure «subentzioagatik». Eta gurekin hain ongi portatu zarelako, ez zaitugu hilko.

A1-BATISTA.- Ez, hor, armairuan jadanik usteltzen hasia den zure Karmentxurekin utziko zaitugu Makarregi jauna, solasaldi ederra izango duzelakoan, heriotzak eramango zaituen arte behintzat.

(Pitxiak, erropak etabar hartuta, erreberentzia egin eta badoaz, Makarregi bakarrik utziz ILUNA egin arte).

Hirugarren agerraldia

(Gela bera, baina oraingoan hutsik, bapatean ohe atzetik bi irudi arerako dira, ANTZEZLE-1 eta ANTZEZLE-2, txotxongiloen higidurak imitatuz)

ANTZEZLE-2.- Harrituta nago Zuzendari jauna, nola den posible Eusko Jaurlaritzak bultzatutako egoitza batetan ikusi ditugun bezalako gertaera latzak gertatzea?

ANTZEZLE-1.- Egia esan neronek ere ez dakit, agian Prudentziok zerbait jakingo du.

(Berriro sartu eta bakoitza beste aldetik agertuko da).

ANTZEZLE-2.- Zuk ba al duzu enigma honen soluzioa? E, Prudentzio?

ANTZEZLE-1.- Ba, zerbait entzun dut, baina ez nago oso ziur, dena dela Batistari gai honi buruz zerbait bazekiela komentatzen entzun nion.

(Berriro sartu eta leku ezberdinetatik ateratzen dira).

ANTZEEZLE-1.- Zer? Nola gerta daitekeen horrelakorik gisa honetako egoitza batetan? Erraza da erantzuna, noizdanik izan ditu Eusko Jaurlaritzak konpetentziak Balneario kontutan, areago, Nafarroako lurraldean?

(Ohetik hartutako almohadoiekin elkarri joka desagertuko dira eta ITXITA jartzen duen kartel bat agertzearekin batera bukatuko da Beteluko Balnearioko Mirakulua).

-azken ILUNA-
© **Mikel Antza, Iñaki Uria**

Amaiera